



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 91

# Zortzi buru txapelaren bila

Anoetako belodromoan erabakiko da gaur Gipuzkoako bertsolari txapela nork jantziko duen

**G**oizeko 11.00etatik aurrera pronostiko, kiniela, apostu, iritzi eta bestelako hizketak hutsean geratuko dira. Anoetako Belodromoan Gipuzkoako Bertsolari Elkarteak prestatu dituen taulen gainean, zortzi finalisten ihardunak erabakiko du nor izango den hurrengo txapeldun gipuzkoarra.

JOXAN OIZ / DONOSTIA

Gipuzkoako 54 bertsolariren artean azken hiru hilabeteotan izandako lehiak gaur izango du amaiera. Egaña, Euskitze, Lizaso, Mendizabal, Murua, Peñagarikano, Olaso eta Sarasuak jokatu dute ikusmin handiz espero zen finala. Laxaro Azkune eta Martxeli Sagastumeren gaien agindupean, eta txapelketan zehar izan den epaimahai beraren puntuketen arabera, jakingo dugu nork jantziko duen azken aldiz 1967. urtean Txomin Garmendiak Tolosan eramanean zuen txapelaren oinordekoa.

Ahoz aho dabilen txapelungai zerrenda Egaña, Euskitze eta Lizaso osatu dute. Peñagarikano eta Murua ere txapeldun ikusten dute zenbaitek. Mendizabalek luxuzko lekukoa dirudi eta Sarasua bihur daiteke hainbat ingurutan espero den sorpresa. Olasok, txapelketako errebelazioa, lasaien kantatu behar lukeena: galtzekorik ez du. Hau irakurtzerakoan txartelik ez baduzu oraindik, taxia eskatu eta Carmelo Baldara jo ezazu lehenbailehen, badazpada ere.



## Belodromoko hamaiketakoa

**Partehartzaileak:** Andoni Egaña, Euskitze, Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Angel Mari Peñagarikano, Martin Rezabal 'Olaso' eta Jon Sarasua.

**Aurkezleak:** Martxeli Sagastume eta Laxaro Azkune.

**Epaimahaia:** Antton Kazabon, Jesus Mari Etrxezarreta, Markel Arizmendi, Rufino Iraola, Jesus Mari Mendizabal eta Andoni Mendiluze.

**Idazkariak:** Joxemari Altuna eta Arantxa Arruti.

**Sariak:** Lehenengoari: txapela, trofeoa eta 250.000 pezeta (12.500 libera inguru); bigarrenari, trofeoa eta 200.000 pezeta; hirugarrenari, trofeoa eta 150.000 pezeta; gainerako bostei, trofeoa eta 100.000 pezeta. Sari berezia: txapelketako doinu aportazio aberatsena.

## 11.00ak bitartean:

- Sarrera saltokia: Balda pilotalekuan.
- 9.30etatik aurrera zabalik. Lehiatila berezi bat irekiko da.
- Belodromoko ateak 10.00etan zabalduko dira.
- Belodromorako sarbidea: Carmelo Baldaren aldetik.
- Aparkatzeko arazoak ziur. Garaiz ibili beraz.
- Antolatzailerikiko kolaborazioa eskatzen da.
- Saioa goizeko 11.00etan puntuan hasiko da.
- Amaiera: 14.45 inguruan.

Kantatuko ez duten batzuk




**XABIER** Kanporaketa Usturbielen, laurdenetan Eibarren eta finalerdietan Oñatin kantatu duen Zeberio maila onean ikusi du txapelketa, «finalerdietara ailegatu ginenok nik uste nahiko maila ona erakutsi genuela; eta gazteak ere, Jon Maia eta Jose Antonio Sasiain, ondo aritu ziren». Finalistei oso maila handia onartzen die eta final atarian geratzeak ez diola penarik sortzen dio: «Konforme nago, nere kanporaketan lehena izan nintzen, laurdenak pasa eta, tira, finalerdietan geratu behar». Dagoeneko behin eta berriz nonahi aipatu den Oñatiako saioko ezbeharrak «bueltarik ez duela» dio, «nik borondate onez erantzun nuen emandako gaiari, ez nuen asmatu..., zer egingo diogu bada, amorrazio pixkat bai, jendearen komentario batzuekin, baina nik nere borondaterik onena jarri nuen hartan». Derrigorrezkoa bihurtu omen den pronostikoa eskatzera, zalantza handirik ez du: «Egaña dut buruan, gero Euskitze eta Murua eta Lizaso hor parean».



**JOXERAMON** Txapelketako lehen kanporaketan, Anzuolan, bera izan zen nagusi, 466 puntu dotorekin. Oiarzungo azken laurdenean, ordea, agur esan behar izan zion txapelketari, finalerdietarako txartela lortu zuen Olaldekin adina puntu lortu arren (430,5). Oiarzungo saioak arantza bat utzi badio ere («gartzelako gaien ez nintzen oso fin aritu» gogoratu du), egindako lanarekin «nahiko gustora» dago Elorza. Oro har, txapelketa honetan zehar saio politak entzun direlakoan dago. «Aitzakiaren bat jartzekotan, epaimahaiak gorabehera handiak izan dituela esango nuke; dena dela, hau ez da kontu berria, txapelketa guztietakoa baizik». Pronostikorik ez digu eman nahi izan, «baina neure gustokoena esan beharko banu, Sebastian Lizaso aipatuko nuke». Olaso finalisten artean izatea pozgarria iruditzen zaio, bere ustez aiarrak ondo merezia bait du ohore hau: «Zenbateko bertsolaria den orain baino lehen ere erakutsia zuen Olasok».



**AITOR** Debako kanporaketan 413 puntu jaso eta txapelketa honetan zuen helburu nagusia lortu zuen: azken laurdenetan kantatzea, bere anaia Aitorrekin batera, Beasainen. Hortik aurrera ezin izan zuen egin, baina espero ere ez zuen espero eta pozik geratu zen egindakoarekin. «Ez dut uste txapelketa batean naizena baino gehiago erakutsi behar dudunik, eta nik ez dut ez gehiago eta ez gutxiago erakutsi». Gainera, «txapelketak jende asko mugitzen duela ikusi da berriz ere», baina hala ere, Sarasuaren ustez, kanporaketen ordez txapelketa egitea proposatu zuen jendeak aipatutako helburua ez da osorik bete, jende gazteari bideak zabaltzea, alegia, «ez ehunetik ehunera behintzat». Finalari begira hau da bere pronostikoa: Euskitze, Egaña, Lizaso eta Peñagarikano. Anaia ez du bostgarrenetik gora ikusten, ez bait du behar adinako motibaziorik: «Ahalegin guztiak eginik ere, Jon ez da txapela irabazteko bertsolaria, eta daukan motibazioarekin are gutxiago».



**SANTIZABALA** Urriaren 25 urrun hartan, Anzuolan jokaturako lehen kanporaketan, galduta izan zen Lexok txapelketako trenaren txartela: «Kanporaketa izan ziren saio polit batzuk, beste batzuk diferenteak ere bai». Halaber, saio hauetan puntuatzera, emaitza desberdinak izan zirela uste du: «Epaimahikoen puntuazioetan aldeak izan ziren saiotik saiora». Finalerdie dagokienez, Tolosakoak maila handiagoa izan zuela adierazi digu Lexok, baita «Telleria Olaso baino hobeto aritu zela» pentsarazi, «baina hori iritzi oso subjektiboa da». 1967. urteko finalean partaide izandako Lexok orduko maila ez zela izan gaurko saiokoa bezain ona aitortu digu, «gaurko bertsolaritza ordukoa baino maila handiagokoa bait da». Onartzen du bere pronostikoa berezi xamarra dela, lehengo ostegunean EGUNKARIA bertan agertutakoa, «baina uste pertsonala besterik ez da»: Murua lehena, Egaña bigarren, Lizaso hirugarren eta Sarasua laugarrena.